

*Erref.- FMR / Legelari aholkularia*

**GAIA: GUFEREN EGITURA ORGANIKOAREN ARAUDIA ALDATZEKO ERABAKI-PROPOSAMENA.**

Foru-erakunde honetako Gobernu Batzordeak, 2012ko uztailaren 16ko ohiko bileran (2/12 akta), Egitura Organikoaren Araudia onartu zuen, eta 2012ko 162. BAO on argitaratu zen, abuztuaren 23an. Geroago, 2016ko martxoaren 17an, araudia aldatzea erabaki zen, eta 2016ko 64. BAO on argitaratu, apirilaren 6an.

Bada, orain, araudi hori aldatzeko eskatzen dugu, horrela asistentziaren etorkizun berriari ekiteko komenigarritzat eta beharrezkotzat jotzen diren antolamendu-aldaketak egiteko. Izan ere, gizarte-errealitateak profil berriak erakusten ditu egunero, eta profil horiek, berriz, ikuspegi eta asistentzia-baliabide berriak eskatzen dituzte.

Agertoki bizi eta dinamiko horrexek behartzen gaitu, etengabe aldatzen delarik, gure egiturak egokitzera, horrela, egiturok egokitzeaz gainera, eraginkortasunez erantzuteko eskarioi. Gizarte Ekintza Sailak detektatzen ditu, hain zuzen ere, errekerimendu eta behar horiek, eta, gero, GUFERI helarazten zaizkio, gomendio modura, egokiro erantzun dakien.

Horiek horrela, lehenik eta behin, organigrama berri bat itxuratu da, zerbitzu-zuzendaritza bi dituen: haietariko bat laguntzaren arloari dagokio bakar-bakarrik, eta halaxe du izena, eta bestea zerbitzu orokorren zuzendaritza bat da. Zuzendaritza horien pean egongo dira, geroxeago esango den bezala, erakundearen zerbitzuak eta zentroak, sistematikoki ordenaturik.

Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza berri hori agertu delarik, desagertu egingo dira Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioetako burutzak, Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioetakoak eta Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuaren burutza, eta, horrenbestez, aurrerago zehaztuko da nola antolatzen diren hierarkikoki zuzendaritza horren pean erakundeko zerbitzu eta asistentzia-zentroak.

Era berean, Zerbitzu Orokoretako Zuzendaritza berriarekin, kendu egingo dira lehengo Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko burutzak eta Zerbitzu Orokoretakoak, eta, arlo horri dagokionez, zuzendariordetza bat sortuko da, erakundearen giza-baliabideen arloa bideratua. Zuzendaritza horrek orobat hartuko ditu bere agindupean eta gainbegiratuako zerbitzu orokorrak, eta, hala, haren baitan bilduko dira kontratazio eta ondarearen arloa nahiz ekonomia eta aurrekontuena. Horrekin batera, arloetako burutzak ezarriko dira esparru horretan ere, giza baliabideen arloan adierazitakoaren antzera.



Erakundearen antolaketa eta hobekuntzaren eremua eta Lege Aholkularitza, bestetik, Gerentziaren pean egongo dira, haien izaera transbertsala kontuan harturik. Era berean, bulego tekniko bat eratuko da, Gerentziaren mende, zentro eta zerbitzuetako obrez eta mantentze-lanez arduratuko dena. Horretarako, egitekoei dagokienez, eremu horretako lanpostu guztiak bildu ahal izango ditu. Arlo horiek ere burutza berri gisa eratuko dira.

Diseinu berriak, era berean, konfiantzazko langile gisa zehaztuko ditu zerbitzuzendaritzetako postuak, eta hori bat dator GUFEn Estatutuak aldatzeari buruzko 4/2001 Foru Arauak dioenarekin; ikus lege-arau horren 3. eta 10. artikulua eta artikuluko konkordanteak. Eta halaber aukeratuko du izendapen askea honako postu hauek hornitzeko sistema modura: legelari aholkularia eta Giza Baliabideen Zerbitzuetako zuzendariordea. Plantillaren antolamendu-tresna onartzen denean emango dira lanpostuon izaeraren arrazoiak, banan-banan eta hurrenez hurren.

Hala eta guztiz ere, egin nahi den aldaketak errespetatzen ditu antolamendu-egitura osatzen eta egituratzen duten eskumen- eta erantzukizun-printzipioak, bai eta organoen izaera zentralizatua nahiz deszentralizatua ere, zeren eta administrazio-unitateak, kasuan-kasuan, modu ordenatuan bideratu behar baitira emaitzak lortzera eta, ondorioz, eman beharreko zerbitzuak eraginkortasunez gestionatzera.

Beraz, goian adierazitakoa kontuan harturik eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernu Batzordeari dagokio erregelamenduak egiteko ahala, erakundearen funtzionamendu egokirako komenigarri edo beharrezko deritzen arauak onetsiz.

Horregatik guztiagatik, idazki honen sinatzaileak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, aztertu eta onar dezan, honako

### ERABAKI-PROPOSAMENA

**Lehena.**- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Egitura Organikoaren Araudiaren aldaketa xedatzea, honi erantsitako dokumentuan adierazten diren irismen eta ondorioekin.

**Bigarrena.**- Agintzea publiko dadila Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian.

Bilbon, 2021eko urriaren 1ean

GERENTEA

Izpta.: David Latxaga Ugartemendia